

Heroiak



Bostekoa

Alex Silva

Askorentzako asteko albistearen dena irakurri ondoren aterata naiz kalera. Fernando Alonso asturiarrak Euskaltel Euskadiren lizentzia erosi du, etorkizuna ziurtatu dio taldeari. Tabernetako atarrietan, dendetako ilaretan, telebistan... ez da beste gairik. Haurrak ere horretaz ari dira. Horrek penatu nau ikaragarri.

Oraindik hamabi urte bete gabe zituen gizaseme batek Alonso bere heroi dela esaten dio beste bati parkean, ogitartekoa jaten ari direla.

Agian, bere adinarekin, eta gizaratearen zurrumbiloak bultzatuta, nik ere esango nituen horrelako orain urte batzuk. Beste famatu batzuekin, noski. Baina horrelakoak.

Orain, adinak eta esperientziak ematen duen distantzia horrekin, gauzak beste era batera ikusten ditut, beste denbora bat eskaintzen diet horrelako esaldi



Heroiak, estatuak eta gizarateak, orokorrean, ahaztutako horiek. HITZA

potenteei. Heroiak niretzako, orain, estatuak eta gizarateak, orokorrean, ahaztu dituzten horiek dira. Hamabi-hamahiru urterekin, egoerak bultzatuta, lanean hasi ziren horiek, beste heroiak ez zutelako. Gerra eta gosetea ezagutu zutenak. Estatu faxista eta espetxeen eraginez maite dituztenen falta izan zuten horiek. Askotan, bere jaioterriak penaz laga behar izan zituzten horiek, etorkizun hobe baten bila. Haien bi-

daian lur eta herrialde bat baino gehiago ezagutu zuten horiek dira.

Egun, erakunde publikoek eta gizarateak eskaintzen duten erraztasunik gabe gure artean, gure herrietan, erroto ziren horiek dira heroiak niretzako. Inork, guk, egin nahi ez genituen lanak egitetik beren lanbidea eta bizirauteko modua ateratu zuten. Egunero goiz jaiki, etxe lanak egin eta lanera joaten ziren. Etxe-

ra, nekatuta, bueltatzen zirenean haurrei euren egitekoak betetzen lagundu eta luxurik gabeko bazkari-afariak egiten zituzten horiek. Askotan, emakumezkoen kasuan batik bat, gauza horien guztien ondoren beste batzuen etxera joan eta garbiketa lanak egiten zituzten, belauniko gehienetan. Horiek dira nire heroiak.

Urteak horrela pasatu dituzte, ez dira haietaz gogoratu. Baina

hor jarraitu dute guztietaz gogoratzen, inolako omenaldirik gabe, aitortzarik gabe. Ezer eskatu gabe. Senideen irribarretxo bat edo musu bat bakarrik nahikoa da beren poza pizteko.

Urteak pasatuta, une zailak igaro dituzte. Familikoak zaindu behar izan dituzte, semeak, gurasoak, bikotekideak... Baina inoiz ez dute etsi. Beti egin dute aurrera aurpegian irribarra dutela.

Besteek behar izan dutenean hor egon dira, berotasuna eskaintzeko, laguntza emateko prest, zuten apurra elkarbanatzeko gogoz.

Baina orain, zer ematen diegu guk? Zer egiten diete politikoei? Zer egiten du gizarateak?... Ezer ez! Pentsioak ez dizkiete ziurtatzen, botikak ordaintzen hasi dira, osasun beharrak gero eta ziurgabeago ikusten dituzte...

Bada horiek dira nire heroiak. Horiek guztiak.

Nik ezin dut gauza handirik egin haien egoera aldatzeko. Nik ezin dut mundua aldatu. Baina nire tartetxo hau eskaini nahi diet, hemendik, nire omenaldirik apala eskaini nahi diet. Nire aitona-amonei, zure aitona-amonei... guztiei. Horrelakoak bizi izan dituztenei.

Aurrera begira ere, nire babesa izango dutelako, ni hor egongo naizelako, eta nik ez ditudalako ahaztuko.